Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

BilbaoArte

PRENTSA OHARRA

# EUSKAL GAZTE TALDEAK DITU INSPIRAZIO ITURRI ‘LOS PICOLETOS’ ARGENTINAKO ARTISTA BIKOTEAREN ERAKUSKETA BERRIAK

«Inkubagailuak» BilbaoArteko Urazurrutia Aretoan inauguratuko da gaur 19:30etan eta martxoaren 6ra arte egongo da ikusgai.

***(Bilbon, 2020ko otsailaren 7an).*** BilbaoArte Fundazioak Dante Litvak eta Fabro Tranchida artista argentinar bikotearen «Inkubagailuak» erakusketa inauguratuko du, Los Picoletos izenez ezagunagoak, 2019an zentroan egoitza izan dutenak. Zentroko instalazioetan ekoiztu eta joan den abenduan beste sei proposamenekin batera aukeraturiko erakusketa da Urazurrutia aretoan aurten egingo diren zortzi erakusketa nagusietatik lehena. Los Picoletosek argazkigintzaren eta instalazioaren bidez formalizatzen dute beren ikerketa, gazte-identitate desberdinekin eta *queer-punk* eta skater kulturarekin lan eginez hari gidari gisa.

Tranchida eta Litvak 2015ean hasi ziren ideiak bateratzen eta elkarrekin ekoizten. *Skate*aren, *punk*aren eta komikien eragina dute batez ere haien lanek, eta kultura ezberdinetako gazteekin lan egitea dute helburu, munduaz duten ikuspegi pertsonala nabarmentzeko. BilbaoArten egoiliar izan ziren sei hilabeteetan kontrakulturako euskal panoramako nerabe asko elkarrizketatu zituzten, eta gauzak ikusteko istorio eta modu oso bereziak eman zizkieten.

*«Inkubagailuak»* Euskal Herriko pertsonaiak Buenos Airesko Los Picoletos hiriko beste bilaketa batzuetako pertsonaiekin lotzen dituen erakusketa da. Izenburua super heroien ernaldia ematen den zientzia fikzioaren irudimeneko leku horren erreferentzia da. Baina gaur egungo gazteek punk filosofia gordetzeko ahaleginaren sinboloa ere bada. Inspiratzen dieten komikietako inkubagailuek, saiakera-hodi edo likido amniotikoko bainuontzi bat kasu, botereak eman edo zauriak sendatzen dituzte, oso erabilgarria izango litzatekeena *skater* eta *punki*entzat. Erakusketan, inkubagailu horiek hozkailu batzuekin irudikatzen dituzte, eta haien ikerketan parte hartu duten gazteen argazkietako batzuk jasotzen dituzte.

Planteatzen den instalazioak argizarizko objektuekin egindako argazkiak jartzen ditu elkarrizketan, eta horiek material horren eskaintza zaharrera igortzen dute, Latinoamerikako elizetan ohikoak zirenak, gaur egun oraindik ere oso presente dagoen ohitura. Birsortzeko gai diren inkubagailuekin bezala, pieza batzuek aldare baten ideia

iradokitzen dute, skate edo borroka egitean sortutako zauriak sendatzeko otoitz egin behar duena.

Bi artista horien eta Bilboko hiriaren arteko harremana 2016an hasiko da Argentinan, *«El Pico»* bezalako *kinki* zinema deskubritzen dutenean. Eloy de la Iglesiak 1983an erretratatu zuen anti-heroien, drogen eta sexualitatearen mundu hori haien begiekin ezagutu eta ikusi behar zuten unibertso bat zen. Argentinako bildumagile baten laguntzari esker, 2017an Bilbora joan ziren lehen aldiz, eta, azkenean, 2019an, BilbaoArte Fundazioaren beka-programan sartu ziren.

Inaugurazioaren irekierarekin batera, *«Munstro gazteentzako gida praktikoa»* izeneko liburua ere aurkezten da, *«Bart Simpsonen bizitzarako gida»* izenekoan inspiratua, artisten nerabezaroari buruzko liburua, lan egiteko erabiltzen duten ibilbidea eta materiala pixka bat gehiago zabalduz. Amaiera ekitaldian (martxoak 6), Adrián Castañeda artista plastikoak *performance* bat egingo du. *Performance* horretan, paella bat prestatuko du bere piezetako baten barruan, brontzezko koroa bat, gas hornidura baten bidez su emango diona.

## LOS PICOLETOS-I BURUZ

**Los Picoletos** —Dante Litvak (1990) eta Fabro Tranchida (1987)— argazkigintza eta instalazioaren bitartez, indentitate gazte eta kultura queer-punk eta skaterrak ikertzen dituen artista bikotea da. Berriki irabazitako sariak: Premio Kenneth Kembre, Premio Itaú (oho-rezko aipamena) eta Beca Colección Oxenford. Azken lanen artean esanguratsuak: *Abanderados* (performance La Juan Gallery-n, Madrid, 2019), *Nudillos rotos* (performance Niño de Elcherekin batera, 2018), *Moralzarzal* (NN-n erakusketa, LaPlata, Argentina, 2019), *Navajeros* (erakusketa, Factoría de arte y desarrollo, Madrid, 2017) eta *Kontuz* (Alkolea-Beach, Donostia, 2017). Artean egin dituzte ikasketak. Irakasle bezala mintegi eta tailerrak ematen dituzte.

**<u>Informazio gehiago / Más información</u>**


**Fundación BilbaoArte Fundazioa**

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | prentsa@bilbaoarte.eus

NOTA DE PRENSA

# LAS PANDILLAS DE JÓVENES VASCOS INSPIRAN LA NUEVA EXPOSICIÓN DEL DÚO ARGENTINO ‘LOS PICOLETOS’ EN BILBAOARTE

«Incubadoras» se inaugura hoy a las 19:30 horas en la Sala Urazurrutia de BilbaoArte y podrá verse hasta el 6 de marzo

***(Bilbao, 7 de febrero de 2020).*** La Fundación BilbaoArte inaugura la exposición *«Incubadoras»* del dúo de artistas argentinos Dante Litvak y Fabro Tranchida, más conocidos como Los Picoletos, residentes durante 2019. La muestra, producida en las instalaciones del centro y elegida junto a otras seis propuestas el pasado mes de diciembre, es la primera de las ocho exposiciones principales que se celebrarán en la Sala Urazurrutia este año. Los Picoletos formalizan su investigación a través de la fotografía y la instalación, trabajando con las distintas identidades juveniles y la cultura queer-punk y skater como hilo conductor.

Tranchida y Litvak comienzan a sumar sus ideas y producir juntos en 2015. Su trabajo, influenciado sobre todo por el skate, el punk y los cómics, se centra en trabajar con jóvenes que pertenecen a distintas culturas para destacar su visión personal del mundo. Durante los seis meses de residencia en BilbaoArte entrevistan a muchos adolescentes que les dan una visión del panorama vasco de contracultura y les aportan historias y maneras muy particulares de ver las cosas.

*«Incubadoras»* es una exposición que conecta personajes del País Vasco con personajes de otras búsquedas en la ciudad de origen de Los Picoletos, Buenos Aires. El título es una referencia a ese lugar en el imaginario de la ciencia ficción en el que se da la gestación de los súper héroes, pero también es un símbolo del intento de conservar la filosofía punk por parte de los jóvenes de hoy en día. Las incubadoras de los cómics en las que se inspiran, como un tubo de ensayo o una bañera de líquido amniótico, confieren poderes o regeneran heridas, lo que sería de gran utilidad para los *skaters* y *punkis*. En la muestra, estas incubadoras son representadas por unas neveras que contienen algunas de las fotografías de los jóvenes que han participado en su investigación.

La instalación que se plantea pone en diálogo fotografías con objetos en cera que remiten a la práctica antigua de las ofrendas en este material, comunes en iglesias latinoamericanas, una costumbre aún muy presente hoy en día. Como con las

incubadoras que son capaces de regenerar, hay piezas que sugieren la idea de altar al que rezar para que sanen las heridas, producidas al practicar *skate* o luchar.

La relación de estos dos artistas con la ciudad de Bilbao comienza en Argentina en 2016, cuando descubren películas de cine quinqui como *«El Pico».* Ese mundo de anti-héroes, drogas y sexualidad que Eloy de la Iglesia retrataba en 1983 era un universo que debían conocer y ver con sus propios ojos. Gracias a la ayuda de un coleccionista argentino, en 2017 viajan por primera vez a Bilbao, accediendo finalmente en 2019 al programa de becas de la Fundación BilbaoArte.

Con la celebración de la inauguración se presenta también el libro titulado *"Guía práctica para jóvenes monstruos"*, inspirado en la "*Guía para la vida de Bart Simpson"*, libro de la adolescencia de los artistas, ampliando un poco más el recorrido y el material con el que trabajan. En la clausura (6 de marzo) el artista plástico Adrián Castañeda realizará una performance que consistirá en cocinar una paella dentro de una de sus piezas, una corona de bronce, que prenderá fuego mediante un suministro de gas.

## SOBRE LOS PICOLETOS

**Los Picoletos** —Dante Litvak (1990) y Fabro Tranchida (1987)— es un dúo de artistas argentinos que indaga, a través de la fotografía y la instalación, sobre identidades juveniles y la cultura queer-punk y skater. Han ganado recientemente el Premio Kenneth Kemble, el Premio Itaú (mención honor) y la Beca Colección Oxenford. Entre sus últimos trabajos destacan: *Abanderados* (performance en La Juan Gallery, Madrid, 2019), *Nudillos rotos* (performance junto al Niño de Elche, 2018), *Moralzarzal* (expo en NN, La Plata Argentina), Navajeros (expo en Factoría de arte y desarrollo, Madrid, 2017) y *Kontuz* (expo en Alkolea-Beach, Donostia, 2017). Han cursado estudios en artes. También dictan seminarios y talleres en calidad de docentes.

**Informazio gehiago / Más información**


**Fundación BilbaoArte Fundazioa**

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | prentsa@bilbaoarte.eus